



Andoaingo Udala

Alkatearen ebazpena

Kontuan harturik euskararen normalizazioak beharrezkoak dituela euskaraz egindako kazetaritza eta euskarazko komunikazio prestu eta modernoa, kalitatekoa eta garaian garaiko beharrianetara egokitua.

Kontuan hartuta, Andoaingo Udaleko Udalbatzak, Osoko Bilkuran batzartuta, 2020ko ekainaren 25ean izandako ohiko batzarraldian, aho batez, onartu zuen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (2020-2025) dokumentuan, oraindik indarrean dagoen horretan, maila ezberdinetako euskarazko sorkuntza sustatu eta ezagutzera emateko jasotzen diren ekintzen artean, honakoa azaltzen dela euskarazko kazetaritza sustatzeko:

8.3.1. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria antolatzen jarraitzea

Kontuan harturik aipaturiko helburu horrekin egin duela hogeita hamazazpi urteko ibilbidea Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak.

Kontuan harturik aurten ere Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 15.000 euroko dirulaguntza izango dugula.

Kontuan harturik deialdi honek indarrean den Andoaingo Udaleko Dirulaguntzen Plan Estrategikoarekin bat dator, hau da, 2026ko maiatzaren 27ko 1500/2026 zenbakiko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onartutakoarekin.

Kontuan hartuta, deialdi honek jarraitzen duela Andoaingo Udalean indarrean dagoen Dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, Udalbatzak 2014.03.27an onartu eta 2014.05.27an GAOan argitaratutakoa.

Kontuan hartuta udal Idazkariak 2026.05.25ean idatziriko oharra, zeinean hainbat zuzenketa proposatzen ziren.

Kontuan hartuta udal Kontuhartzaileak 2026.06.01ean idatzitako txostena, zeinean hainbat zuzenketa proposatzen ziren.

Kontuan hartuta Udaleko euskara teknikariak 2026.06.08an idatziriko aldeko oharra.

Horrenbestez, agiri honen bitartez, ondokoa

ERABAKI DUT

- 1.- Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren 38. ediziorako deialdia egitea eta edizio horretarako oinarriak eta aurrekontua onartzea.
- 2.- Azaroaren 17ko 38/2003ko Dirulaguntza Orokorren Legearen (DOL) 18. Artikuluan jasotzen den bezala, deialdi honi eta saritutakoak jasotzen dituen ebazpenari buruzko informazioa



Andoingo Udala

- bidaliko da Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera (BDNS), DOLen 20. artikuluan ezarritako moduan. BDNStik bideratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialerako iragarkia.
- 3.- Deialdia eta oinarriak komunikabideei eta kazetariei, hala nola herritarrei oro har, ezagutzera emateko neurri egokiak har ditzan mandatua ematen zaio Euskararen Normalizaziorako Lansailari, besteak beste aipatu oinarrien argitalpentxo bat kaleratu eta interesatuen artean banatuz.
 - 4.- Aurreko urteotan bezala aurtengo edizio honetan ere Xabier Laka jaunari emango zaio saritutakoei emango zaizkien oroigarriak egiteko mandatua.
 - 5.- Aurreko ediziorako lortutako PFEZren ordainketa-salbuespenari aurtan ere eusteko beharrezko diren lanak egingo ditu Euskara Zerbitzuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean.
 - 6.- Aurreko urteetan ohi bezala, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dirulaguntza eskaera egitea.
 - 7.- 38. edizioaren gastuak, gehienez ere, 54.470 eurokoa izango dira 2026ko aurrekontuaren honako bi partiden kargura: 36.470 €, 1.0600.226.335.00.06.(386) partidarenera eta gainontzeko 18.000 €, 1.0600.480.335.00.02 (568) partidarenera.
 - 8.- Erabakia Kontuhartzailtza lansailari, epaimahaikideei eta Xabier Lakari jakinaraztea.

Hala agindu eta sinatu dut, Andoainen sinadura datan.

Idazkaria

Alkatea

